

# EUSKAL LIBURUGINTZA 1994

*JOAN MARI TORREALDAI*

---

rakurtzen hasi orduko jabetuko da irakurle ohartua aldaketa ugari dagoela liburugintzari egiten diodan hurbilketa honetan. Hasieratik emango dut handitxoenen berri, kasuan kasuan aipatzeko utziz beste batzuk.

Nobedade aipagarriena, agian, liburuak sailkatzeko era aldatu izana da. CDUren arabera klasifikatu ditut orain, ISBN-ko Agentzia espainiarraren bidetik. Berau baita orain gomendatzen den sailkapen-modua. Lehengo zaharrera ohituta gaude-noi nahasbide bat baino gehiago dakarkigu honek, baina tira, ohitu egin beharko dugu.

Azterketaren barruan elementu berriak sartu ditut, hurbiltzapen eta ikuspegi diferentek; lehengo batzuk sistematizatu

egin ditut, gorpuztu; kontzeptu batzuk argitu eta zehaztu. Hitz batean, klasifikapena aldatzearen abaguneaz baliaturik, azterketa osoari eman diot errepassoa, moduetan eta edukietan.

Aspaldi aldatu nahi nuen beste puntu bati ere heldu zaio bere ordua. Urteko titulu-kopuru orokorrak ari naiz. Urtez-urteko hurbiltzapen hauen irakurleak artikuluaeren amaieran ohar txo bat aurkitzen zuen beti, «egiazko» titulu-kopurua handiago zela adierazten zuena. Hastapeneko irizpideen gatibu nintzen horretan. 1977 urruti hartan langintza honetan hasi nintzenen, testu-masan jarri ohi nuen arreta berezia, eta horregatik, testu gutxi edo batere gabeko liburuak fitxatu bai baina kontaduriaz aparte utzi ohi nituen. Gertatu da, denborarekin, hazi egin dela izugarri liburu-mota hori, haurrentzako liburua. Eta nik kenduz segitu dut koherentziagatik eta konparazioak egin ahal izatearren. Gaur arte. Zifra errealak emango ditut orain, ISBNri dagozkionak, bai aurtengoak eta, baita ere, aurreko urteetakoak. Zifren dantza honek ez du inor harritu behar. Bilketan bat nekez izan daiteke osoa, are gutxiago baldintza hauekin egin behar eta. Behin-behinekotzat hartu behar dira beti zifrak. Informazio berri osagarria eskuratu ahala datu-basea osatuz joan ohi gara, urte batean ezin dena bitan edo hirutan biribilduz. Bizirik mantendu nahi dugu fitxategia, hobetze aldera.

Gaur inauguratu dugun hurbiltzapen-mota honek zer eman- go duen ikusi behar dugu aurrena, baina, berandu baino lehen, edizio elektronikoari ere heldu beharko diogu, fitxa egin eta aztertzeari alegia. Jada bada zerbait baino gehixeago alor honetan, nahiz eta gehiena irakaskuntzari begira moldatua den.

## EKINTZA EDITORIALA

Emaitzen azterketara edo liburugintzara pasa aurretik ekoizle- en aurkezpen bat egingo dugu.

Hasteko, esan behar da, ez dela erraza argitaratzaileen popu- lazioa zehaztea. Euskal editore bezala ISBN espainiarrean alta emanda daudenak 216 dira. Guzti horiek, ordea, ez dira aktiboak. Aktibo omen diren guztiek ez dute urtero argitara ematen.

Informazio ziurragoetara mugatuz, zera esan dezakegu, alegia, 112 agente argitaratzailearen artean kaleratu direla 1994an 1.109 liburuok. Denetik dago 112 horietan: argitaratzaile publikoak eta pribatuak, handiak eta txikiak, egile-editoreak eta taldeak.

Panorama hori pittin bat argitzeko, bi identifikazio-modu egingo ditugu: bata, argitaratzaileen titulu-kopuruaren araberrako dimentsioz; eta bigarrena, izaera juridikoz.

#### ARGITARATZAILEAK TITULU-KOPURUAREN ARABERA

##### **Argitaldarien ranking-a**

	<i>Zenb. abs.</i>	<i>%</i>
Elkar	268	24.2
Ibaizabal	140	12.6
Erein	94	8.5
Ttarttalo	78	7.05
Eustat	31	2.8
E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia	30	2.71
EHU. Argitarapen Zerbitzua	26	2.35
Desclée De Brouwer	21	1.90
Pamiela	20	1.81
Giltza	19	1.7
<i>Guztira</i>	<u>727</u>	<u>65.5</u>

Lehen hamar etxe argitaratzaileek urteko produkzio osoaren % 65,5 hartzen dute. Asko ala gutxi den ez dakit. Dakidana da Galizian eta Catalunyan baino gehiago dela: Galizian, % 60,6 da proportzioa eta Catalunyan askoz gutxiago, % 28,4. Kontzentrazio-maila bat adierazten du gure kopuruak.

Argitaratzaile nagusi hauen artean ere, hori da bestea, jatorri eta molde guztietakoak daude: bertokoak eta kanpokoak, publikoak eta pribatuak, handiak eta tartekoak.

Gero esango dugu zerbait honetaz. Orain, puntu bat edo beste azpimarra dezagun:

— Handiena ere ez da handia kanpoko editoreen tamainaren ondoan. Estatuko editoreen *ranking*-an, adibidez, 29. pos-

tuan agertzen da gure aurrenekoa: Elkar, euskal edizioaren ia lautik bat ateratzen duena.

— Euskal argitarapenetara 90eko hamarkadan etorri diren editore nagusiak itzulpena lantzen dute gehiena: Desclée de Brouwer eta Grijalbo-k ehuneko ehun, Giltza-k eta Zubia-k ia lautik bat, eta Ibaizabalek % 60.

— Bertoko argitaletxe nagusiek produkzioaren erdia-edo berrargitarapena dute (berrargitarapena baino berrinprimaketa): Elkar-ek % 49; Erein-ek % 56 eta Pamielak % 50. Berrargitarapenak pisu eskas-eskasa du, aldiz, edizio publikoan eta kanpotik etorritako editorialetan.

— Edizio pribatuak apenas publikatzen duen liburu elebidunik. Aginte autonomiko eta foralak, ostera, ia eksklusiboki elebiduna ateratzen du, eta —nahiz eta ez aitortu— gehienetan euskarara bihurtua izan ohi da.

#### ARGITARATZAILEAK LEGE-IZAERAREN ARABERA

	Titulu- -kopurua		Argitara- tzaileak	
		%		%
Administrazio autonomiko eta forala.....	105		10	
Administrazio lokala.....	16		11	
Kultur eta hezkuntz erakunde publikoak...	44		13	
<i>Argitarapen publikoa</i> .....	165	15	34	30.3
Enpresa editorialak.....	809		31	
Irabaziasmo gabeko elkarte eta taldeak.....	107		38	
Noizbehinkariak, egile-editore eta beste.....	28		9	
<i>Argitarapen pribatua</i> .....	944	85	78	69.6

Argitaratzaile publikoak kopuruz dextente dira (% 30,3) baina produkzioan ez dute hainbeste indar (%15). Hemen sartzen dira Gobernuak, Foru Aldundiak, Udaletxeak, EHU, etab.

Argitarapen pribatuaren esparruan bereizketa handi bat dago egin beharra: enpresak (handi zein txiki) alde batetik eta bestelako helburu eta filosofiaz jokatzeko duten elkarte, talde, ikastetxe eta gizabanakoak, bestetik. Liburu-ekoizle ez publikoen % 60 dira hauek, baina produkzioaren % 15era ez dira iristen. Guk «enpresa editorial» gisa katalogatu ditugun 31 etxeren esku dago produkzio pribatuaren % 85,7.

Aipaturiko datu hauei begira iruditzen zait euskal edizioak ez duela kompetentzia desleial nabarmenik argitaratzaile publikoen aldetik. Betiko leloa da hau editoreen munduan, baina zenbat ateratzen duten ikusita (% 15) eta batez ere zein liburu-mota (salmenta gutxikoa), ez dut ikusten arriskurik hor. Produktu hauen zirkulazio eskasa, hori bai dela arazoa.

Edizio pribatua atentzioa ematen duena da propioki editorial ez diren argitaratzaileen kopuruaren handia: 47. Hauen artean batzutan profesionaltasunak egiten du huts, komertzializazioak beste batzutan, eta promozioak ia beti.


Enpresa bezala izendaturiko horien barruan, nire ustetan kezkarriena bertoko zenbait editorialen tamaina txikia da. Eraginkor izateko eta irauteko txikiegiak iruditzen zaizkit asko. Egitura txikiarekin aise funtziona dezakete kanpokoen adar direnak, itzulpenean oinarritzen direnez, baina ez bertokoak.

## ARGITARAPENAREN ZIFRAK

### TITULU-KOPURUA


1.100 bat liburu argitaratu da euskaraz, 1994ko lege-gordailuz. Aurreko urtetik hona jaitsi egin da, huskeria bat. Ez aurreko urteko igoerak, ez oraingo jaitsierak, ez dira esanguratsuak.

Liburu katalan eta gailegoaren konpainian aurkezten dugu gu reekoizpenaren eboluzioa. Grafikoari esker begi-kolpe baten bidez ikus genitzake liburugintza bakoitzaren tamaina eta gora-beherak.



Urte batetik bestera mugimendu txikiren bat beti dago titulu-kopurutan, baina azken 5 urteotako produkziara bista luzatzen badugu, badirudi 1.100 inguru horretan planto egin due-la ekoizpenak. Dauden aldaketak, berriz diogu, txikiegiak dira aintzat hartzeko. Urte batetik bestera elkar konpentsatu egiten dutela ematen du. Hona urtez urtekoa 1990etik 1994 arte.

### Titulu-produkzioaren urtez urtekoa (%)




### ARGITARALDIAK

Eskaintza osoaren gain argitaraldiek zenbateko pisua duten erakusten du hurrengo grafikoak.

Herria	1. argit. (%)	berrarg. (%)
Euskal Herria	79	21
Katalunia	81.1	18.9
Galizia	92.6	7.4
Espainia	80.9	19.1
Frantzia	42.4	57.6
Italia	62.5	37.5


Proporzio horiek, lehen argitaraldikoak eta berrargitarapenarenak, tamaina onean dauden ala ez, nik ez dakit epaitzen. Konparazio-bidez joerazko proporzio batzuk agertzen dira, baina ez naiz ausartzen ondorio gisa deus esatera. Seinalatu bakarrik Estatu espainiarreko liburugintzek dutela elkarren antzekotasun gehien, eta Frantzian berrargitarapenak abantaila handia hartzen diola lehen edizioari.

### Lehen argitaraldien urtez urtekoa (%)



Lehen argitaraldiaren eboluzioan, iaz hazkunde dexentea izan ondoren (+ 19,7), jaitsi egin da aurten (- 7,6, hau da, 72 liburu). Jaitsieraren gakoa liburu itzuliaren jaitsialdian dago.

Berrargitarapena igo egin da. Gutxi, baina gora egin du (+ 9,6, hau da, 21 liburu). Berrargitarapenak jauzia egin 1991n egin zuen, eta harrez gero hortxe mantentzen da, 200 pasatxoan.

**Berrargitaraldien urtez urtekoa (%)**

Berrargitarapenak bere graduak ditu. Editorialen fondoa aberastuz doala begien bistakoa da. Hamar argitaralditik gorako hamar liburu badajada. Bost-hamar bitartean berrogeita hamar bat dira. Baina, noski, gehien-gehienak hortik beherakoak dira. Hona zerrenda:

- Bigarren argitaraldia..... 106 titulu
- Hirugarren argitaraldia ..... 40 titulu
- Laugarren argitaraldia..... 35 titulu
- Bostgarren argitaraldia..... 16 titulu
- Seigarren argitaraldia..... 8 titulu
- Zazpigarren argitaraldia..... 8 titulu
- Zortzigarren argitaraldia..... 7 titulu
- Bederatzigarren argitaraldia..... 8 titulu
- Hamargarren argitaraldia..... 6 titulu
- Hamaikagarren argitaraldia..... 2 titulu
- Hamabigarren argitaraldia..... 2 titulu


Haur literaturako bi dira hamabi aldiz berrargitaraturiko horiek: *Pernando Amezketarra* (J.A. Ormazabal) eta *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian*.

Narratibako bi dira hurrenak: *110. Street-eko geltokia* eta *Is-tanbul-en elkartuko gara*.

Narratibakoak dira hurrengo bostak ere: *Obabakoak*, *Behi euskaldun baten memoriak*, *Babilonia*, *Itsasoak ez du esperan-tzarik* eta *Desagertutako emakumea*.



## ITZULPENAK



Urteroko itzulpenak 1993an jo zuen gailurra, 400 libururekin. 65 liburu gutxiago atera da 1994an.

Itzulpena, egia esan, hemen azaldu duguna baino handiagoa da zifratan, bai 1994an eta berdin aurreko urteetan. Arrazoietakoa bat hau da: badira editorialak itzulpena sistematikoki kamuflatzen dutenak. Itzulpena aitortu ordez eufemismoak erabili ohi dituzte, hala nola egokitzapena, moldapena, hizkuntz aholkularitza, edota itzultzailea egileen artean kokatzen dute. Testuliburuetan gertatzen da hori, Ibaizabal, Bruño, Gil-tza eta Zubiaren kasuan, adibidez.

Itzulpenaren tamainaz ere ezin luze jardun, ondorioak ateratzeko ez bainaiz gauza. Gu denen gaineratik gaudela bistakoa da. Italia dugu hurbilen. Frantziaren proportzio txikia, harrigarri gertatzen da besteen ondoan. Hauen kasua *chauvinismo*-tzat joko du norbaitek, eta gureari kolonizatuaren taxua hartuko dio horrek berak.

Herria	liburu itzuliak (%)
Euskal Herria	30
Katalunia	18.2
Galizia	15
Espainia	22.9
Frantzia	4.8
Italia	26.4
Alemania	14.6

## TIRADA

Ale-kopuruaz zehatz eta mehatz nekez mintza gaitzke. Datuak baditugu, baina ez exhaustiboak.

Tentuz bada ere, bizpahiru ohartxo egin genezake:

— Tiradaren jaitziera azken urteotako joera da. Gurean, eta gurean baino areago bestetan. Ez dakit euskal liburuaren eboluzioa zein izan den, baina bai Estatukoa. 1981etik hona urtean urtean jaitsi eta jaitsi doa tirada. Erdia eta gehiago jaitsi da 13 urtez. Gaztelaniazko liburuaren bataz besteko tirada 1981ean 9.434 zen eta 1994an 4.071. Izugarria, eta kezka-garria. Ez zait iruditzen euskal liburuan proportzio horretan murriztu denik ale-kopurua.

Joera honek kausa jakin batzuk ditu, eta jakinak dira ondorioak ere.

Kausetan sakontzen ezin gaitzke luza hemen. Aipamen soilarekin aski da: industria editorialak inbertsioaren errota-zio handiagoa bilatzen du, tiradak murriztuz arriskua gutxitu egin nahi du, kostu finantzario eta biltegikoak saihestu egin nahi ditu. Fotokonposaketaren eta inprimategiaren aurreramentu teknikoak posible egiten du tiradak azkartu eta egokitzea. Eta ondorioak? Merkatu berririk ez da bilatzen, bizialdi motza du liburuak, fondoko liburua desagertzeaz dagoke. Horrela ulertzen da zergatik bilatzen duten editorialek tituluak ugaltzea eta tiradak murriztea.

Galdetzekoa da hemen —edo ez dakit non— euskal editorial-gintzak ez ote dion zezenari adarretatik heldu behar behin-goz, eta ez ote duen joan behar tituluak gutxitzera eta tiradak gehitzera, promozioa indartzera, zirkuitu berriak sortzera. Horra eztabaida-gai galanta.

— Liburu-motaren arabera tirada desberdindu egiten da, noski. Zertan esanik ez da, gai-sail guztietan ez da ale-kopuru bera kaleratzen. Zifra estimatiboak baino gehixeago izanik ere, eskuartean dauzkagun datuekin dioguna baino askoz gehiago ezin genezake esan.

— Ale gehien kaleratzen duena testuliburua da. Gero, haur eta gazteentzako literatura.

— Ematen du literaturan argitaraldiko ale dexente jaitsi dela, baina argitaraldien azkartzearekin konpentsatu egiten da.


## PRODUKZIOA GAI-SAILKA

Arestian aipatu bezala, bospasei gai-sailetan banatu nahi izan dugu euskal ekoizpena. Produkzio espainiar eta frantziarraren aztertzaileek egin ohi duten moduan banatu nahi izan dugu produkzioa azpisektoreka, baina ezin gai-sail guztiak hornitu.

Frantziarrek 10-12 bat azpisektore bereizten dituzte: giza zientziak, literatura, ederti-liburuak eta liburu ederrak, bititza praktikoa, aisia, zientziak eta teknikak, gazteria, erlijioa, komikia, irakaskuntza, erreferentzi lanak.

Gure produkzioa sail horietan guztietan banatu nahi izatea, ameskeria da, ez du ematen. Sail erdiak ganoraz betetzeko ozta-ozta gara gauza. Hauetxek: giza eta gizarte-zientziak, literatura, haur eta gazteentzako liburua, literatura, irakaskuntza-liburua. Hainbat sektoretan, bititza praktikoa, zientzia eta teknikan, aisialdian, adibidez, ez dugu produkzionik. Zertan esanik ez da: «euskaldun oso» izateko beste produkzionik ez dugu. Horra zertan den errealitatearen ispilu liburugintza.

Urtea joan eta urtea etorri konstatatu izan dudana azpimarratuko dut atzera: euskal liburugintza hiru liburu-sektoretan metatzen da: irakaskuntzan (% 33,9), haur eta gazteentzako liburuan (% 27,3) eta helduen literaturan (% 17,3). Kontzentrazio-puntu bat baino gehixeago hor badagoelakoan nago. Hiruen pisua % 78,3 da gurean, gailegoen kasuan % 62,5 eta katalanen liburugintzan % 55,8. Sanoagoa dirudi katalanen egoerak.



Eman diezaiogun begiratu arin bat, atalka-atalka, handienatik txikienera.

#### HEZKUNTZA ETA IRAKASKUNTZA


- Didaktika. Pedagogia. Orientabideak.....	13.8
- Haur eskola. Oinarrizko irakaskuntza.....	15.9
- Lehen Hezkuntza .....	52.1
- Batxilergoa eta UBiko irakaskuntza .....	6.3
- Lanbide-Heziketa. Teknika-irakaskuntza .....	0.07
- Euskararen irakaskuntza .....	10.9
	% 100

Sektore honetan lehen aldiz sartu dugu euskararen irakaskuntza-liburua, metodoak, gramatikak, hiztegiak. Bestalde, testuliburuekin batean mantendu ditugu pedagogia-liburuak.

Guztira, sektore honek karga handia du produkzioan: % 33,9, hirutik bat. Gailegoen liburugintzan gure parekoa da partea (% 32,3), baina askoz txikiagoa katalanean (% 22,7).

Sektorearen barruan Lehen Hezkuntzako materialek hartzen dute erdia eta gehiago: % 52,1. Ikasketa-plangintza berriari erantzun beharrak testu berriak ekarri ditu. Dena den, urtez urteko eboluzioari begiratz gero 92-93an ibili zen goien produkzioa, 1994an (eta ustez 1995ean) jaitsi egin da, eta 1996an berriaz gora egingo du hurrengo faseari erantzun behar eta.

**Irakaskuntza-liburuen urtez urtekoa (%)**



Testuliburuetan lehen argitaraldia da nagusi, % 80,5, eta honen barruan ekoizpen propioak du lehentasuna (% 78,8). Ez itzulpena eta ez berrargitarapena dira kuantitatiboki inportante.


Itzulpenaren kasuan, halere, ez ahaztu arestian aipatua, zenbait editorialek ez duela aitortzen. (Kasu horietan, neuk kontrakoa frogatu ahal izan dudanean, edota editorialetik konfirmatu zaidanean, itzulitzat eman dut liburua, nahiz eta bere kreditu-orrian agertu ez). Hortaz, hemen ager daitezkeenak baino gehiago dira itzulpenak. Itzulpenetik egokitzapenera bide luzea dago, ez dira sinonimoak. Tartean daude: proiektu kurrrikularra, ilustrazioa, adibideak, testua bera.

Eta itzulpenarekin batera, edukiak daude testuliburuetan. Hainbat kasutan mila puskatan zatitu digute Euskal Herria, euskal lurak, euskararen esparrua. Hau da, Ipar Euskal Herririk ez dago, Nafarroa ez bide da Euskal Herria, euskara Bidasoaraino iristen da, Hendaian hasten da Frantzia; ez dugu historiarik eta apenas geografiarik. Espainiako eskualde bat gara, eta kitto. Txillardegiz gogoratzen naiz honelakoetan.

#### HAUR ETA GAZTEENTZAKO LIBURUA

Sektore honek % 27,3ko pisua du produkzioaren barruan. Liburuak eta liburuskak batean kontaturik, noski. Sail honetako produkzioaren % 44,3 da liburuskarena. Datu honek zera adierazi nahi dezake, sektorearen barruan haur liburuak sekulako pisua duela.

Katalanen liburugintzan pisu gutxiago du (% 17,1) eta galegoenean are gutxiago (% 11,4).



Eboluzio positiboa izan du, 1994an. bi urte jarraian jaitsiz joan da eta aurtengoan kolpe batez errekuperatu du galdutako maila.

Lautik hiru, liburu berria da: % 76 da lehen argitaraldia. Liburu berria bai, baina itzulia gehiena (% 71,3). Euskaraz gutxi sortzen da nonbait gure haur eta gaztetxoentzat. Inportaziotik elikatzen dira editorialek: 164 liburu dira itzuli direnak. 164 itzulpen 66 euskaldunen aurka.

Berrargitarapenak produkzioaren laugarren zati hori osatzen du, 73 libururekin. Gutxi iruditzen zait. Pentsa zitekeen bestelakorik, hots, orain arteko produkzioari etekin gehixeago aterako ziotela editorialek. Zer gertatzen da? Irakurlego berririk ez dela sortzen?


#### LITERATURA

Liburu-mota honek % 17,1 suposatzen du. Catalunyan % 16 eta Galizian % 18,8. Nahiko parean gabiltza hiruok sektore honetan.

- Narrazioa.....	69.5
- Olertia .....	7.8
- Antzertia .....	6.8
- Herri-literatura .....	6.8
- Antologiak eta beste .....	4.7
- Entseina .....	4.2
	% 100

Urterokoa errepikatuz, elaberriak eta ipuinak aurreraturik doaz oso portzentaien lasterketan. Seinalatzekoa da narraziotik olertira dagoen aldearen handia. Tarte hori, eta berdin beste generoekikoa, handituz doala dirudi, gainera. (Entseiua lehen aldiz sartu dugu genero autonomo gisa).

Literatur liburuak eboluzio positiboa darama azken bi urteotan, gehitzen ari dela, alegia. 1991-1992 urteetan, bietan, jaitsi egin zen. Orduan jaitsitakoa bikoiztu eta gehiago egin du azken bi urteotan.

**Literatura-liburuaren urtez urtekoa (%)**

Liburuaren sektore honetan berrargitarapenak pisu handia du: % 41. Ez da, hortaz, % 60ra iristen urteko produkzio berria: % 58,9. Hori bai, produkzio berri horretan euskaraz sorturiko liburua da nagusi, lautik hiru pasatxo (% 76,7), 86 titulu zehazki.

**GIZA ETA GIZARTE-ZIENTZIAK**

Filosofia eta Psikologia .....	6.1
Soziologia eta Estatistika .....	18.1
Zientzia politikoak eta ekonomikoak .....	5.0
Zuzenbidea .....	5.0
Linguistika eta Filologia .....	14.0
Geografia eta bidaiak .....	10.1
Historia eta biografiak .....	21.3
Erreferentzi eta kontsulta-liburuak .....	13.4
Etnologia .....	3.9
Antolaketa .....	0.5
Edertia .....	2.8
Erljioa .....	2.8

% 100

Sektoreoso zabala da hau, eta hala eta guztiz ere 178 liburu bakarrik dauzkagu bertan produkzio osoaren % 16.

Orohar, ez itzulpenak, ez berrargitarapenak du pisu gehiegi-rik liburu-modu honetan. Itzulpenak indarra du filosofia, estatistika eta historia saileko liburuetan. Eta berrargitarapenak, biografietan. Ez gaitezen, baina, ur handitan sar alor honetan kopuru txikiegirekin gabiltza-eta.

#### GAINERAKOAK

Sail honetan sartzen ditugun bi liburu-mota punta-punta-koak dira gizarte modernoan (eta postmodernoan). Zientziaz-ko eta teknika-liburuez eta aisia-liburuez ari naiz, urtetik urte-  
ra desarroilo handiagoa daukatenak.

Sektore hauek gurean ez dute gorputzik. Liburu guztiok batean ez dira % 5era iristen. Libururik ez egiteak ez du esan nahi Euskal Herria zientzia zehatz eta erabiletan edo teknologian atzera dagoenik edota aisiari dagozkion eremuetan praktikatzailerik ez dagoenik. Bizitza profesionalean eta librean erdara-  
z ari dela euskaldungoa adierazten du horrek, soziolingüistika-  
kako tesi batek baino egokiago adierazi ere.

#### Zientzia eta Teknika

Zientzia zehatzak .....	47.8
Zientzia erabiliak eta teknologikoak.....	21.7
Medikuntza .....	26.0
Merkataritza eta Garraioak .....	4.3
	% 100

Honela ikusita ematen du zerbait baino gehixeago ere bada-  
goela. Baina egin kontu, guzti-guztira, 23 titulu direla. Hutsa-  
ren hurrengo. Eta egin kontu, baita ere, jakintzaren eta bizitza-  
ren esparru hau handi-zabal horietakoa dela: Nekazaritzatik in-  
formatikara eta etxeke ekonomiatik kimikara.

#### Aisia-liburuak

Komikiak .....	8
Sukaldaritza .....	4
Musika .....	56
Argazkigintza .....	12
Jostaldiak. Jokoak. Kirolak .....	20
	% 100



Nazioarteko liburugintzan indarrean sartu den sektore honen gurean 25 liburuk ematen duen pisua du. Eta, halere, kontsumitzaile eta praktikatzaile apartak gara gai hauetan. Bai, baina... Argiñanok erdaraz argitaratzen du, Iñurrategi anaiek ez dute idazten, eta Indurain-ek jakin ere ez daki euskaraz. Ehiztariz bete zaizkigu mendiak udazkenean, baina ezin dute, ehizaz liburutik irakurri euskaraz. Foiletoetatik ez gara pasa oraingoz. Erdaraz (in)formatzen gara eta erdaraz bizi dugu aisialdia. Ala ez?

### Oharrak

1. Liburuaren fitxa bibliografikoan ohar hauek agertzen dira:
  - Tituluaren ostean eta parentesi artean: i = itzulpena; b = berrargitarapena; e = elebikoa.
  - Izenen artean: / = itzultzailea; // = ilustratzailea (marrazkilaria zein argazkilaria).
  - Izenaren ondoren: \* = Prestatzailea, egokitzailea, paratzailea, biltzailea.  
\*\* = Zuzendaria, promotorea, antolatzailea, ardura-duna, koordinatzailea.  
\*\*\* = Euskalki-aldatzailea.
2. Gogotik eskertzen dut fitxak osatzeko orduan editorialen aldetik jaso dudan laguntza estimagarria. Modu berezian eskertu behar dut Karlos Aiestaranek emandako informazioa eta *Zabaltzen*-ek emandako erraztasunak liburuak kontsultatu ahal izateko.



## 1994ko LIBURUAK: GAI-SAILKAPENA

Sailak	Zenb. abs.	%
<b>0. OROTARIKOAK</b>	<b>335</b>	<b>30,21</b>
—Zientzia eta kulturaren oinarri orokorrak. Bibliografia. Katalogoak. Bibliotekonomia. Entziklopediak. Kazetaritza. Poligrafiak. Museoak	32	2,89
— Haurrentzako argitalpenak	303	27,32
<b>1. FILOSOFIA</b>	<b>11</b>	<b>0,99</b>
—Metafisika. Ontologia. Estetika. Filosofia-sistemak. Psikologia. Logika. Eтика		
<b>2. ERLIJOA. TEOLOGIA</b>	<b>5</b>	<b>0,45</b>
—Berezko teologia. Biblia. Kristologia. Mariologia. Teologia moralak. Liturgia. Pastoral-teologia. Eliza. Kristauez besteko erlijioak		
<b>3. GIZARTE-ZIENTZIAK</b>	<b>394</b>	<b>35,53</b>
—Soziologia. Estatistika. Demografia. Politika. Ekonomia. Zuzenbidea. Herri-administrazioa. Gizarte-laguntza. Etnologia	59	5,32
—Hezkuntza. Irakaskuntza. Heziketa. Pedagogia	335	30,21
<b>5. ZIENTZIA HUTSAK. ZIENTZIA ZEHATZAK ETA NATURALAK</b>	<b>11</b>	<b>0,99</b>
—Matematikak. Astronomia. Fisika. Kimika. Geologia. Metereologia. Paleontologia. Biologia. Botanika. Zoologia		
<b>6. ZIENTZIA ERABILIAK. MEDIKUNTZA. TEKNIKA</b>	<b>14</b>	<b>1,26</b>
—Medikuntza. Injinerutza. Teknika. Nekazaritza. Basogintza. Zooteknia. Etxeko ekonomia. Industria. Kimikagintza. Zenbait industria eta lanbide. Eraikuntza		
<b>7. EDERTIA. JOLASAK. KIROLAK</b>	<b>27</b>	<b>2,43</b>
—Edertia. Estetika. Hirigintza. Arkitektura. Eskultura. Marrazketa. Margo-gintza. Argazkigintza. Musika	22	1,98
—Jostaldiak. Jolas eta jokuak. Kirolak	5	0,45
<b>8. FILOGIA. LITERATURA</b>	<b>256</b>	<b>23,08</b>
—Hizkuntzalaritza. Filologia	66	5,95
—Literatura. Literatur historia eta kritika. Literatur generoak	190	17,13
<b>9. GEOGRAFIA. BIOGRAFIA. KONDAIRA</b>	<b>56</b>	<b>5,05</b>
— Geografia	18	1,62
— Biografiak	17	1,53
— Kondaira	21	1,89
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.109</b>	<b>100</b>